

## “NESKA MUTILEK ILUSIO HANDIZ EKIN DIOTE PROGRAMA HONETAN PARTE HARTZEARI”



Nuria Revuelta | ELGOIBAR IKASTOLA (<http://www.elgoibarikastola.eu/web/default.php>)  
LEHEN HEZKUNTZA FISIO

Nuria Revuelta, Elgoibar Ikastolako irakaslea, Lehen Hezkuntzako Fisio Sistemaren barruan (4., 5. eta 6. maila), Kosmodiseako Fono etapan puntuazio altuena lortu duen "Bostakoak" taldearen arduraduna da.

Nuri Revueltak dioenez, ikasleek poztasun handiz hartu dituzte emaitzak, gainera lehen aldia delako Kosmodisean parte hartzen dutela. *"Ilusio handia dute eta horrek lanean jarraitzeko motibatuko ditu".*

Revueltarentzat, Fono etapako gauzarik zailena, parte hartzen zuten ahots ugarien grabazioak egin ondoren soinuan agertzen ziren desorekak konpontzea izan zen. *"Beste irakasle batzuen laguntzaz arazoa konpondu genuen. Gainera, ikasleek teknologia berriak erabiltzea Kosmodiseako alde azpimarragarri eta interesgarrietako bat iruditzen zaigu".*

Parte hartu duzuenean, bereziki zaila izan den alderik izan al da?

- *Hasieran, zail xamarra izan zen programaren egitura ulertzea, baina ondoren, ikasleek modu argian barneratu dituzte helburuak.*